

Aitzen ama

Agorrilean, hil zen Maite, Aitzen ama. Emakume euskalduna, Iparraldean errefuxiatua, euskaraz bizi, amestu eta eraiki zena. Okindegian, alkate frantsesarekin, nirekin eta edozeinekin euskaraz ari zena. Nire nerabezaroz gogoratu naiz, larunbat arratsaldeko manifestazio negargarrien mina pairatu ondoren, tortila bat egin zigun, hartaz indarberritzeko. Gogoratu naiz bere begiradaz eskaileran, manifestazio berriz gindoa zela. Metro eta erdiko emakume duin bat. Bere ehorzketan ere berea lortu zuena. Elizan, joaldunek, gaiteroek, txalapartariak, dantzariak... beren lekua izan zuten. Txominek aurrekua dantzatu zuenean, emozioa zabaldu zen elizan. Emakume puska bat agurtu genuen. Aurrekuak bere funtzioa bete zuten. Minduta, baina ongi egin izanaren sentimendurekin atera ginen ehorzketatik. Doi bat harro. Komunitatean, gure kulturak minaz askatzeko duen tresneriari esker, gure heroi ikusezin bat agurtzeko moldea aurkitu genuen.

Hamabost egun ez ziren pasatu eta G7a kari, Ezpeletan, «Dama» famatu taldearen aurrean, aurrekua dantzatu zen. Ezpeletako piperra, Agur Jauna, gasna, urdaiazpikoa, eta aurrekua. Sabeleko mina. Ez dut auzitan ezartzen norberak prostituziorako duen beharra edo hautua. Hau norberak erabakitzen du. Bere gorputzarekin edo bere intimitatearekin bakoitzak egiten duenak niri bost. Baina hau ez da norbakoarena. Dantza edo abesti hau euskal komunitatearena da. Egun horretan, nire lagunaren amaren gorputza zangopilatua izan zen.

Gure artea, gure komunitatearen existentzia beraren bermea da. Antzezlan bat gure hizkuntzan ikusten dugunean, edo film bat, Euskal Herri txiki bat gara. Askeak eta batuak. Gure komunitatea irriz ari da, edo negarrez, harritzen da, bizi da. Gure irudimena aberasten dugu. Komunitatea osatzen eta ureztatzen dugu. Hau ez badugu babesten,

hau ez badugu ureztatzen, gure gizatasuna bera galtzen dugu, eta kontsumitzaile hutsak bilakatzen gara. Jan, edan, eta kaka egiteko artalde bat.

Euskal lurraldeetan, hauteskundeetan sasoia dator berriz ere. Iparraldeko herriak, euskal autonomia, Espainiako estatuan diren erabaki guneetako hautagaiak jokoan dira. Programak bidean dira. Baina aurrekoetan bezala, kultura agertzen bada zeharka, kontzeptu hutsetan eta kontsumokoetan azalduko da, apaizeriaz josita: ongi izatea, elkarbizitza, aisialdia...

Gure artea ez da egina «ongi» pasatzeko. Ez da astebururako plan bat. Gure artea bizirauteko giltza da. Euskal jendartea ez da euskaraz mintzatuko behartua delako. Euskal jendartea euskaraz mintzatuko da eus-

karaz haserretu, maitemindu, kezkatu, poztu edo mundua pentsatzeko aukera baldin badu. Eta hau ez da behartzen, hau eskaintzen da. Arteak modeloak eskaintzen ditu apasionatzeko eta pentsatzeko. Estatu Batuek ongi ulertu dute *soft power* delakoa, eta aspaldian zinemako ekoizle indartsuena Estatu Batuetako armada da. Artearekiko maitasun-

Ez da astebururako plan bat. Gure artea bizirauteko giltza da. Euskal jendartea ez da euskaraz mintzatuko behartua delako. Euskal jendartea euskaraz mintzatuko da euskaraz haserretu, maitemindu, kezkatu, poztu edo mundua pentsatzeko aukera badu. Eta hau ez da behartzen, hau eskaintzen da



Aurrekua dantzatu zieten Miarritzen egindako G7aren goi bilkurako agintariak eta haien bikotekideak. A. PARSONS / POOL / EFE

magatik hartzen den erabakia da hau, edo eragiteko interesagatik? Zertarako gure herrian ezin dugu eskaini euskal komunitateak merezi duen artea eta kultura? Politika programak eraikitzen dituzten adituak agian ez gara aski duinak, eta, horren ondorioz, funtsezko eskubide hau debekatu izatea arazo bat ez dela uste dute? Noiz eta zertarako utzi zen gotorleku hau bazterrean? Edo zer, utzikeria da nagusi? Inkultura? Zeren funtsean, abertzalea izatea hau da: herria maitatzea eta ureztatzea. Zerk definitzen gaitu ez bada gure hizkuntzak, eta ondorioz gure arteak? Biluzik gara, bakar-bakarrik borrokatzen gara, eta eragile sozio politikoek beste norabait begiratzen dute. Eta euskaldunek ez dute euskaraz mintzatuko eta bizitzeko aukera serioak.

Euskal Herria existitzen ez denez, ez du historiarik. Kontakizunaren borroka hasi da, nahiz eta ez den benetan borrokarik. Gure lurraldeak ez dio eskaini kontaktuz kontrastatuaren aukera bere biztanleriari. Serieak ateratzen dira Estatu Batuetako diruarekin, edo espainiar estatuak sustengaturik, eta, ondorioz, haiek erraiten digute zer pentsatu eta sentitu behar dugun. Guk film bat ateratzen dugu urtean, eta honi loraldia deitzera ausartzen dira batzuk. Barkamen eske gabilta,

ikusezin, itsu eta elkor gure herriari. Artistek bere onartzen duten egoera tamalgarri bat. Gaiak atera behar dira, eta urradura eragin, gizarte berriz josi ahal izateko. Familiek bizi izan

dituzten traumak gizarteratu, elkarrekin, euskal komunitate gisa bakoitzak merezi duen babesa eskaini ahal izateko. Hautua hau da: ama agurtu, edo geratzen zaigun ondasun bakarra saldu.

ZALDI URDINA

EMANALDIAK

URRIA

- || 15-16-18-19 ANGELU
- || 23-24-25-26-27 DONOSTIA

AZAROA

- || 1 AZPETIA
- || 7 BILBO
- || 9 BARAKALDO
- || 12 HERNANI
- || 13-14 IRUÑEA
- || 15 OÑATI
- || 17 ORERETA
- || 19 GASTEIZ
- || 22 GERNIKA
- || 23 LARRESORO
- || 30 MARKINA-XEMEIN

ABENDUA

- || 1 SOPELA
- || 13 HENDAIA
- || 20 LASARTE-ORIA

IGOR ELORTZA eta UNAI ITURRIAGATIAK Iritzia
Zuzendutako XIMUN FUCHS eta AINARA GURRUTXAGA
Aitorrak ANDER LIPUS - OLATZ BEOBIDE - URKO R. PESCADOR
MIREN ALCALA - MANEX FUCHS - EDURNE AZKARATE - OIER ZUNIGA
AXUTI • ARTEGARA • DEJABU
www.zalditudina.eus